

SECCIÓN AMENA



JUAN ERREN

IPUIÑA

Erromeriara beñ nijosala oñez,
 Zentimo chiki bana pobreai emonez,
 Juan erren urten jatan mutiko bat legez,
 «¡Ai! ene zer jazo jat» esanda negarrez!
 Eta itandu neutsan:—«Juan Erren gaišua,
 ¿Zer dozu matrallara jasorik eskua?»
 Erantzun eustan: —«galdu dot chakur nausia,
 Eta begietatik asi jat euria,
 Eta zelan ez dodan pañelocho bat nik,
 Eskuaz emen nabill sikatu eziñik.»
 —«Eutsi chakur nausia galdu aren laiña
 Negarrik ez dau bear gizonak eiñ baña....»

Echera nendorrela erromeriatik,
 Barriro urten jatan goišeiko lekutik,
 Orduan bere zelan erautsan negarrez,
 Esan neutsan beiñgoan, baña irribarrez:

—«¿Geyago etzengian zuk egin negarrik,
 Ez deutsudaz len emon amar zentimo nik?»

—«Jauna, egia diño, eta parkatu bei,
 «Galdua topau banen ¡ai! neukazan ogei,
 »Ta ogei zentimogaz erosi ardaoa,
 »Eingo neban; ogia dot bada naikoa.»
 Arek nai ebana zan beste bat nengion
 Goišeian neutsan legez arrasteian emon.

Gizonak euki arren jateko laiñ ogi
 Beste zerbaiten bere ¿nor ezta egarri?
 Esan nei erratuko dodan bildur arren,
 Mundu guztia dala orretan Juan Erren.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

